

## ASMOAK

Euskaldunon izaera bereziaren ezaugarria delako edo ikastoletan urbanidade minimorik irakasten ez delako, ezezagunen aurrean norberaren nahiz lagunaren aurkezpenak egitea ez dugu gustoko. Egin dezadan lehenbailehen neurea. Izena goiko horixe dut. Jaioterria, Ordizia (baina ez naiz sekula bertako alkate izan).

Asmoen deklarazio solemneak, horiek bai, usteak haina ustel gertatzen ez direlakoan edo, erraz eta gustora egiten ditugu. Hona hemen neurea:

1. Saiatuko naiz euskarari buruz ez idazten. Ez dirudi erraza izango denik, euskararen aurkako eraso hain agerikoa den garaiotan. Beti iruditu zait, hala ere, *Euskaldunon Egunkariako* irakurleak euskararen aldeko mezua nahikoa ezaguna duela eta praktikara eramana, eta ez dagoela egunero komentzitua komentzitzen ibili beharrik. Euskararen aldeko mezua oraindik euskaldunak ez direnen artean zabaldu behar dugu. Eta ez didazue esango honetan aliatu onena Miguel Sanz bera ez denik. Baietz aurten Nafarroa Garaiko helduen euskalduntze matrikulak gora egin! EAeko gobernu, diputazio eta udal(biltz)etako hizkuntz politika arduradunek ere badute Sanzi zer eskerturik: beren politika epel, sinboliko, garesti eta ganorako efekturik gabea ez du inork benetan den bezalakoa ikusiko; alderantziz, oso litekeena da aurten ere Korrikaren *euskaltzalearen saria* (edo dena delakoa) ematea horietakoren bati. Baietz!

2. Saiatuko naiz unibertsitateaz, barka EHUz, ez idazten. Izan ere, nik hor egiten dut lan eta, sobrare, zaila izan behar du bertan lan egin eta EHUri buruzkoez ez aritzeak. EHko unibertsitate haundiena da eta publikoa da. Baina ez bakarra. Eta kontatzen direnetatik asko ez dira, maiz, ez garrantzitsuenak ez interesgarrienak. Egia da EHU gatazkaren erdian kokatu dutela azken errektoreek, batetik, eta ETAk, bestetik. Borroka politikorako tresna gisa erabiliz batzuk (nork ikusi ditu beste sei unibertsitateetako Errektoreak zeregin horietan?), bortxa politiko lazgarrirako jokaleku gisa besteek. Ez dira une gozoak, sorgin-ehiza akademikoa eta gizaki-ehiza fisikoa nagusitzen ari diren hauek. Hitzari errespetua diotenak isilik daude.

Asmo positibo bat bera ere aipatu gabe joan zait gaurko lehen zutabe hau. Esan dezagun, Etxepare gure lehen liburugilearekin batera: *debile pincipium melior fortuna sequatur*.